



OTAMENDI EGIGUREN, Martxelo

Euskaldunon Egunkaria-ko zuzendaria
Gudarien etorbidea, z/g
20140 Andoain
egunkaria@jalgi.com

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 121-124]

Hedadura nazionaleko prentsa eta aldizkariak

(Nation-wide press and magazines)

Euskara hutsezko prentsa eta aldizkariak gaur egungo gizartean aurrera ateratzeko dauzkaten zailtasunen berri ematen zaigu idatzi honetan. Errealitateari begirada bat eman eta proposamen batzuk luzatzen ditu bere osotasunean euskarazkoa den egunkari bakarraren zuzendariak.

Este trabajo nos presenta las dificultades actuales a las que han de enfrentarse la prensa y revistas en euskara para poder salir adelante. El director del único diario en euskara repasa la situación actual y realiza una serie de propuestas.

Ce travail nous présente les difficultés actuelles et celles qu'ont dû affronter la presse et les revues en basque pour pouvoir réussir. Le directeur du seul journal en basque examine la situation actuelle et réalise une série de propositions.



1. Sarrera

Ezeren aurretik eskerrak eman nahi dizkiet antolatzaileei, hau da Eusko Ikaskuntzari, mintegi honetan EUSKALDUNON EGUNKARIAri bere ekarman xumearekin parte hartzeko aukera emateagatik.

Agerpen honetan alde batera utziko dut herri aldizkarien kasua, berezia delako. Ez dute kioskoetan lehiatzen; gehienak doan banatzen dira. Oso fenomeno interesgarri eta txalotzekoa da, elkarlanerako esparru interesgarria eskaintzen duena, harrobi lana egin dezakeena... baina merkatu standarretatik ateratzen dena. Horregatik ez zait konparagarria iruditzen bestelako euskal prentsarekin; ez behinik, kioskoetan lehiatzen denarekin.

“Hedadura Nazionaleko prentsa eta aldizkariak” izena du antolatzaileek minutu (lerro) batzuetan jorratzeko eskaini didaten gaia. Azkar pasatu beharko dut Hegoaldeko bi zati administratiboek egitura autonomiko propioa hartu zutenetik gaur arte. Nafarroaren kasuan aipatzeko gutxi dago, urtea joan eta urtea etorri bertako gobernuek ezer gutxi egin dutelako prentsaren alorrean, laguntza txiki batzuk arautu besterik ez.

2. Autonomiaren ondorengoak

Euskal Autonomia Erkidegoan bestelakoa izan da jarrera. Hasierako Eusko Jaurlaritzak garbi eduki zuen zer edo zer egin beharra zegoela euskarazko komunikabideen alorrean, eta lehentasuna ikusentzunezkoetan jarri zuen: telebista eta irratia. Horren ondorioz sortu zen EITB. Ez naiz luzatuko sorreran eta ondorengo garapenean, aurretik beste batzuk jardun dutelako horretan eta gaurko nere gaia ez delako. Baina komeni da ez ahaztea dirutza handiak destinatatu direla eta destinatzen direla entereantzat. Prentsaren orduko sektoreak pentsatu zuen ikusentzunezkoen *bolararen* ostean idatzizkoen egoerari helduko ziola EAeko administrazioak; hau da, behin ikusentzunezkoena finkatu ondoren euskal komunikabideen mahaiari falta zitzaion beste hanka sortzeari, edo sortzen laguntzeari, helduko ziola. Lau arrazoi zeuden uste baikor eta itxaropentsu hartarako:

1.- Komunikabideen esparrua osatu beharra zegoen eta ikusentzunezkoen ondoren

“ **Administrazio publikoa behartuta dago iragarkiak euskaraz eta gazteleraz argitaratzen. Ondorioz, erdal medioek bi iragarki argitaratu eta kobratzen dituzte, eta euskarazko argerkariak bakarra. Hain justu euskarari kasurik egiten ez dioten medio horiek ateratzen diote etekin ekonomikoa** ”

falta zenari, hau da prentsari, heldu behar zitzaion.

2.- (Erdal) Prentsak garrantzia, eragin eta kontsumo handia du Euskal Herrian eta komeni da euskal prentsa indartsua eta eraginkorra izatea. Horrezaz gain euskaldun *normalak* sortzeko baliabide ezinbesteko da.

3.- Hizkuntzaren normalizazio eta fijazio bidean prentsa (kontsumo denboran irauten duelako eta begietatik sartzen delako) oso tresna baliagarria da.

4.- Ikusentzunezkoak baino dexente merkeagoa da, nahiz hemen eta mundu guztian audientzia beti bajuagoa izan idatzizkoarena ikusentzunezkoena baino.

Lau puntu hauek zeuzkaten buruan duela hamabost urte euskarazko prentsa kudeatzen ari zirenek, baina EAeko administrazioak ez zuen esparruan arretarik jarri. Interes faltagatik eta, are okerrago dena, sektorea kudeatzen zutenekiko mesfidantza politikoagatik.

Urteak pasatu zituen, hortaz, sektoreak aurrerapen handirik egin gabe. Ondorengo urteetako historia ezagutzen duzue: laguntza txiki batzuk, *EGUNA*, *HEMEN* eta azkenean *EUSKALDUNON EGUNKARIA*ren jaiotza.



Euskaldunon Egunkaria-ren lehen alea, 1990eko abenduaren 6koa.

Euskararen legearen 17. urteurrenari ari garela, ikus dezagun zer gertatzen den publizitatearekin. EAEko euskararen legeak, esate baterako, ez du euskarazko prentsaren garapenerako araurik. Are larriagoa dena. Administrazio publikoa behartuta dago iragarkiak euskaraz eta gazteleraz argitaratzen. Arau horren ondorioz, euskarari laguntzeko jarrita omen dagoen arau administratibo horren ondorioz, erdal medioek bi iragarki argitaratu eta kobratzen dituzte, eta euskarazko argerkeriek bakarra. Hain justu euskarari kasurik egiten ez dioten medio horiek ateratzen diote etekin ekonomikoa arau horri. Baina, inprobisatzen jarrita, beste era batera legisla zitekeen. Herrialde bakoitzean lehena izatea oso garrantzitsua da publizitate administratiboa jasotzeko orduan, oraingo arauetan berdin da gazteleraz eta euskaraz izan. Noski, lehena beti gaztelerazkoa da, baina legisla zitekeen "euskarazko lehenaren" figura sortuz. Edo legisla zitekeen elebitasunaren izenean erdal medioek bi iragarki jasotzen badituzte euskal medioek ere bi aldiz jasotzea iragarkia, bi egunetan esate baterako. Edo legisla zitekeen EAEko administrazioak euskal medioetan publizitatea jartzea derrigorrezko kopuru batzuetan, edo legisla zitekeen euskarazko publizitate publikoa jasotzen duten erdal medioek publizitate horren araberako euskara kuota batzuk eduki behar izatea, edo legisla zitekeen....

3. Gaurko egoera

Zein da gaur egun euskarazko prentsaren egoera? Denbora izanez gero, informatiboki jorrotuta dauzkagun esparruak ikusi beharko genituzke eta ondoren esparru bakoitzean ditugun agerkariak eta horiek dauden egoera aztertu.

Baina adibide batekin azalduko dut. Hitzaldia Donostian dela aprobetxatuta, bertako adibidea jarriko dut. Eman dezagun Donostiako Askatasunaren Etorbidean dagoen kiosko handi horren jabea hil eta dituen bi alaba bakarrek hartu behar dutela kioskoa herentzian. Eman dezagun bi alabak ez datozela bat herentzia ulertzeko moduan eta erabakitzen dutela bi zatitan banatzea kioskoa. Hau da, batek gaztelerazko prentsa bakarrik salduko du eta besteak euskarazkoa bakarrik. Ez da oso azkarra izan behar igartzeko zer kiosko (negozio, fakturazio) puskarekin geratuko den gaztelerazko puska hartzen duena eta zer larri ibiliko den hilaren bukaerara iristeko euskarazko zatia hartzailera.

Ariketa polita da zerrendatzea gaztelerazko prentsak jorrotzen dituen esparruak: egunkariak, kirol egunkariak, arrosa, sukaldaritza, moda, internet, informatika, musika... eta esparru bitxietan sartuz gero suhiltzaileentzako aldizkariak, urpekarientzakoak, trenetako lokomotorak, belautziak... Berrogeita hamar jardun-esparru baino gehiago lantzen du gaztelerazko prentsan egunkarietan eta aldizkarietan. Zer esparru lantzen ditu, ordea, euskarazko prentsak? Egunkari bat (*Euskaldunon Egunkaria*), bi astekari orokor (*Argia eta Herria*), kultur-gogoeta aldizkaria bat (*Jakin*), zientzia aldizkari bat (*Elhuyar*), musika aldizkari bat (*Entzun*) eta askoz gehiago ez. Kioskoaren adibideak erakusten duen bezala, herritarrak ez daki euskal prentsa dagoenik, ikustera ere iristen ez delako. Eta argitaratzen den apur horretatik Egunkaria da kiosko estandarretan agertzen den bakarra. Besteak, *klandestinoak* dira, zuzenean doazelako inprimategitik etxeko postontzira. Gaztelerazko prentsak dirua ematen du; euskarazko komunikabideetatik denek diru laguntza publikoa behar dute, hilko ez badira.

Azken 25 urte hauetan agerkari batzuk jaiotzen dira, handik urte batzuetara hil ere egin direnak. Literatur aldizkariak dira horren adibiderik nabarmenena. Nahiz denok dakigun literatur aldizkari hilkortasun tasa oso handia dela, besteak beste hiltzeko jaiotzen direlako. Baina azken urteotan haur aldizkariak ere ikusi ditugu hiltzen, are larriago dena. Elhuyar sortu zenetik, Argiak urratsak eman zituenetik, Jakin berri sortu dira aldizkariak baina gehienak elkarte edo erakunde horretako bazkideentzat izateko helburuarekin. ENTZUN musika aldizkaria izan liteke sortu den bakarretakoa, bi hilabetetik behin agertzen dena eta kiosko estandarretan ez dagoena. Zabalkunde berezia du, disko dendak, liburutegia batzuk...

4. Bost proposamen gogoetarako

Baina agerkari handirik ez da sortu azken 25 urte honetan. Eta hori larria da, oso larria. Nora jotzen du euskararekin dirua egin nahi duen euskal kapitalak? ETBra. Adierazgarri ezta? ETB gaur egun dirubide delako, ez zorbide euskal prentsa bezala. Baina ETBn egiten den dirua, "irabazten" den dirua, fiktizioa da, komunikabide horrek finantziario publikoa duelako, % 80an. Zer edo zergatik ez du euskal kapitalak euskal prentsan inbertitzen...

Azaleko kontsiderazio hauen ondoren eta, bukatzeko, bost proposamen egingo ditut euskal prentsaren sektoreari lagungarri izango zaizkiolakoan:

- 1.- Sektorearen estrategikotasuna aitortzetik garatzera pasatu.
- 2.- Sektorearekiko harremanak subentzio banaketatik haratago eraman.
- 3.- Merkatua, beraz eskaera, sortzeko sustapen kanpainak. Sektoreak dituen bitarteko ekonomiko urriekin ezin du merkatua sortu.
- 4.- Publizitatea, publikoaren ondorioz pribatua, euskal medioetara eramateko estrategia diseinatu.
- 5.- Sektorearen antolaketa, elkarlanerako bidea urratuz.

Hauxe da guztia, mila esker eskaini didazuen arretagatik.